

Hondarribiko hotel-okupazioa %70 ingurukoa izan da uztailean

· Turismo nazionala %81ekoa izan da, iaz baino pixka bat handiagoa.

· Turismo bulegoek 9.376 bisita izan dituzte, iaz baino 1.700 gehiago.

Hondarribia, 2021eko abuztuak 5.- Hondarribiko hotel-okupazioa %69koa izan da uztailean, iazkoaren oso antzekoa den kopurua.

“Ziurgabetasun-egoeran bizi izan dugunez, eta kontuan hartuta uztailean eguraldia ez dela oso ona izan, pozik gaude iazko ia okupazio-kopuru bera lortu dugulako”, dio Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko presidentek.

Bestalde, María Serrano Bidasoa bizirik-eko presidenteordeak nabarmendu duenez, “bisitari askok beren interesa erakutsi dute bai hiriak eta inguruak historia, erosketa edo naturari dagokionez eskaintzen dutenagatik, bai turismo enogastronomikoagatik ere”.

Hotelen okupazioari dagokionez, azpimarratzekoa da batez beste 2 gau eman direla bisitari bakoitzeko.

Jauregui hoteleko Gonzaga Jaureguik azaldu duenez, “uztaileko zifrak iazkoen oso antzekoak izan dira, eta hotelaren okupazioa %70ekoa izan da, nahiz eta batez besteko prezioa hobetu dugun. Egia esan, errusiar mendi etengabe batean bizi gara, egun batean erreserbatu egiten dute eta hurrengoan bertan behera utzi, eta horrela egunero. Jendea azken unera arte zain egoten da. Gainera, eguraldiak ez du lagundu”.

Bisitarien jatorriari dagokionez, Jauregik adierazi du “atzerritarren kopurua beste urte batzuetakoa baino txikiagoa izan dela. Orain, turismoa batez ere nazionala da”. Abuztuari begira, hoteleko zuzendariak esan du “uztaileko itxaropen berak ditugula. Egunez egun goaz, eta uste dugu okupazioa %50-70 ingurukoa izango dela. Eta irailera begira, ziurgabetasun handia dugu”.

Bestalde, Txantxangorri eta Branka jatetxeetako Xabier Tifek azaldu duenez, “lehen hamabostaldia lasaia izan zen, eguraldiak ere ez zuen gehiegi lagundu. Bigarrenean pixka bat hobetu zen, mugimendu gehiago zegoen. Jendea lehenago erretiratzen dela nabaritu dugu. Lehen sukaldea beranduago ixten genuen. Orain abuztuan mugimendu gehiago dagoela dirudi, ikusiko dugu zer gertatzen den”.



Bisitari gehiago Turismo Bulegoetan

Hilabete honetan 9.376 pertsona igaro dira herriko Turismo Bulegoetatik, iaz baino 1.700 gehiago. Zehazki, 7.553 pertsonak bisitatu zuten Arma Plazako bulegoa eta 1.823k Portukoa.

Horietatik 7.302 nazionalak ziren eta gainerako 2.074 pertsonak atzerritarrak, batez ere frantsesak.

Aipatzekoa da 1.034 kontsulta ez-presentzial ere jaso direla, eta informazio-eskaera nagusiak enogastronomiaren, interes turistikoko puntuen eta liburuxken eta mapen ingurukoak izan direla.